

## KONTSUMOBIDEKO ZUZENDARIAREN EBAZPENA, ZEINAREN BIDEZ KONTSULTA PUBLIKOA EGITEN BAITA KONTSUMOBASK – KONTSUMO-BULEGOEN EUSKAL SAREA SORTZEKO DEKRETU-PROIEKTUA EGIN AURRETIK

Kontsumobidek aurreikusita dauka Kontsumo Bulegoen Euskal Sarea sortzeko dekretu-proiektua egiten hasia. batean sartzen dira.

2022ko uztailaren 15ean, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legea argitaratu zen EHAAn. Bertan, xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko arauak jasotzen dira eta testu berri batean sartzen dira. Honela dio 11. artikulua:

*“1. Xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak, testu juridiko arauemaielen proposamenak idatzi baino lehen, kontsulta publikoaren bidez bilduko du herritarren iritzia. Herritarrei zuzendutako alde aurretiko kontsulta-izapide horretan, beharrezko neurriak hartuko dira, ziurtatzeko, batetik, gizon eta emakumeen ordezkariak orekatua, eta, bestetik, arautzekoa den alorrean edo sektorean berdintasuna bultzatzen duten elkarleen parte-hartzea. Halaber, hizkuntza-eskubideak errespetatuko zaizkio alde aurretiko kontsultetan parte hartzen duen orori, Administrazio langile zein herritarra izan.*

*2. Aurretiako kontsulta prestaketa-fasean sartzen da, kontuan hartuta herritarrekiko interakzio-izapide bat dela, xedapenaren hartzaile izan daitezkeen pertsona guztiek beren iritzia emateko aukera izan dezaten, behar adinako epean eta hamabost egunetik beherakoa izan gabe, eta testu juridiko jakin bat onartu aurretik..*

*3. Aurretiako kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentroak edo -organoak bete ahal izango du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan iragarkia jarrita. Hala, herritarrei berriaz gonbidatuko zaie informazioaz iritzia eman dezaten, honako hauei buruz: araua onartzeko beharra eta egokitasuna, arauaren helburuak, konpondu nahi diren arazoak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.*

*4. Artikulu honetan aurreikusitako herritarren parte-hartzearen eskakizuna betetzat jo dezake testu juridiko arauemaietako alde aurretik onetsi ondorengo araugintza-prozedurako instrukzio-faseko entzunaldi eta informazio publikoaren izapideak. Memorian horrela jasota utzi beharko da, hala bada.”*

Bestalde, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuen eta antolakunderik ordezkagarrien iritzia jasoko da ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoei buruz, hura onartzeko beharri eta egokitasunari buruz, arauaren helburuei buruz eta egon daitezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik buruz.

Horregatik guztiagatik, KONTSUMOBASK Kontsumo Bulegoen Euskal Sarea sortzeko dekretu-proiektua egin aurreko kontsulta publikoaren izapidea

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 11ko 38/2025 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, hau

**XEDATZEN DUT**



**LEHENENGOA.** KONTSUMOBASK Kontsumo Bulegoen Euskal Sarea sortzen duen dekretu-proiektua egin aurretik herritarrei kontsulta publikoa egiteko izapidea egitea, 15 egun balioduneko epean, agindu hau Eusko Jurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta Irekia gobernu irekiaren plataforman argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

**BIGARRENA.** Ebazpen honen eranskina onartzea, herritarrek ekimenari buruzko iritzia emateko behar den informazioarekin.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean

**Ana María Sánchez Herráez**

**KONTSUMOBIDEKO ZUZENDARIA**

## ERANSKINA

<b>EKIMENAREN BIDEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</b>	<p>Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren apirilaren 27ko 4/2023 Legearen 54. artikulua, 1. apartatua, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari agintzen dio udal-informazioko bulegoen sorrera sustatzea, bere eskubideak behar bezala baliatzeko orientazio zehatza errazteko; 3. apartatua, berriz, informazio-bulegoen lana koordinatzea esleitzen dio, eta, bereziki, informazio-bulegoen sareko funtzionamendua ahalbidetuko du, informazioaren zirkulazio arina errazteko, erreklamazioak izapidetzean bikoiztasunak saihesteko eta arazoak identifikatzen eta jarduketak planifikatzen laguntzeko. Ildo beretik, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren egitura eta antolaketa ezartzen dituen uztailaren 12ko 159/2011 Dekretuaren 2. artikulua erakunde horri esleitzen dio kontsumoaren arloan toki-administrazioekin lankidetzan aritzea, informaziorako udal-bulegoen hedapena bultzatzea, aholkularitza teknikoa ematea eta lankidetzak-hitzarmenak sinatzea bere helburuak betetzeko baliabideak, teknikak eta materialak partekatzeko.</p> <p>Sare-egitura formalizaturik ez izateak eragotzi egiten du bulegoen arteko sinergiak erabat aprobeztatzea, baliabideak, materialak eta tresnak partekatzea eta kalitate-estandar komunak ezartzea. Horrek bikoiztasunak, disfuntzio operatiboak eta efizientziarik eza eragin ditzake kontsumitzaileak babesteko sistema publiko osoan.</p> <p>Etorkizuneko dekretuak arazo horiek konpondu nahi ditu, dirulaguntzen eredu batetik sareko eredu egituratu, koordinatu eta irizpide komunez hornitutako batera igaroz. Ikuspegi berri horri esker, efizientzia hobetu, administrazioen arteko lankidetzak indartu, baliabide partekatutako optimizatu eta Euskadiko lurralde osoan arreta ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatuko da.</p>
<b>ARAU ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA</b>	<p>Kontsumitzaileei informazioa emateko udal-bulegoen sare bat eratuko duen dekretu bat onartzea beharrezkoa da 9/2007 Legeak eta 159/2011 Dekretuak Kontsumobideri toki-administrazioekiko sustapen, koordinazio eta lankidetzaren arloan esleitzen dizkieten eginkizunak eraginkortasunez betetzeko.</p> <p>Orain arte, indarrean egon den ereduak, batez ere urteko dirulaguntzetan oinarritua, udal-bulegoen existentzia sustatzeko baliagarria izan da; hala ere, ez du bermatu haien homogeneotasuna ezta koordinazio operatiboa ere. Egoera honek agerian uzten du beharrezkoa dela eboluzionatzea, sare-egitura egonkorra eta egituratua ezarriko duen esparru arauemaile baterantz.</p>

	<p>Arau honen aukera nagusia sare formalizatu baten sorreran datza; sare horrek ahalbidetuko du irizpide komunak, gutxieneko funtzionamendu-estandarrek eta lankidetzeta-mekanismoak ezartzea, lurralde osoan arreta homoginoa eta kalitatezkoa bermatzeko. Era berean, baliabideen optimizazioa, tresnen partekatzea eta kudeaketaren eraginkortasuna hobetzea erraztuko du.</p> <p>Dekretu berriak Kontsumobideren gaitasuna indartzea ahalbidetuko du, koordinazio-, aholkularitza tekniko- eta udalei laguntza emateko eginkizunak betetzeko, sistemari epe ertain eta luzerako plangintza sustatuko duen esparru egonkorra emanez.</p> <p>Era berean, dekretua onartzea aukera bat da pertsona kontsumitzaileen babeserako sistema publikoa modernizatzeko, lurralde-kohesioa hobetzeko eta pertsona guztiek, beren bizileku-udalerrria edozein dela ere, informazio- eta arretaz-erbitzu eraginkor, koordinatu eta kalitatezkoa izan dezaten bermatzeko.</p>
<p><b>ARAUAREN HELBURUAK</b></p>	<p>Dekretuaren helburu nagusia da arau-esparru egonkor bat ezartzea, kontsumitzaileei informazioa emateko udal-bulegoen sare koordinatu bat eratzeko, egungo dirulaguntza-eredua gaindituz eta Euskadi osoan arreta homoginoa, eskuragarria eta kalitatezkoa bermatuz.</p> <p>Arauk Kontsumobideren eta udalerrien arteko administrazioen arteko lankidetzeta indartzea du xede, sistemari koordinazio-, aholkularitza tekniko- eta laguntza operatiboko mekanismo egonkorak emanez, zerbitzuaren eraginkortasuna hobetzeko eta disfunczioak saihesteko. Horren bidez, bermatu nahi da udal-bulego guztiek irizpide komunen arabera jardutea, prozedurak partekatzea eta beren eginkizunak betetzeko tresna eta baliabide egokiak izatea.</p>
<p><b>IZAN LITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILE ETA EZ- ERREGULATZAILEAK</b></p>	<p>Dekretu bat prestatzeko aukeraren aurretik, hainbat alternatiba aztertu dira, bai arauemaileak bai arauemaileak ez direnak, kontsumitzaileei informazioa emateko udal-bulegoen sare egonkor, koordinatu eta eraginkor bat bermatzeko aukerarik egokiena zehazteko.</p> <p>Lehenik eta behin, egungo ereduaren jarraipena aztertu da, udalerriei zuzendutako urteko dirulaguntza-deialdietan oinarritua. Hala ere, urteko deialdien mendekotasunak plangintza zailtzen du, ziurgabetasuna sortzen du eta ez du bermatzen sare homoginoa eta egituratu baten sendotzea.</p> <p>Aukera horren aurrean, arautze-dekretu bat onartzea aurkezten da kontsumitzaileentzako informazio-udal-bulegoen sare egonkor, koherente eta koordinatua eratzeko aukerarik egokien</p>

	<p>gisa. Arauak aukera emango du betebehar argiak, funtzionamendurako irizpide komunak, gutxieneko kalitate-estandarrak eta administrazioen arteko lankidetzamekanismoak ezartzeko, Euskadi osoan sarbide-berdintasuna eta zerbitzuaren eraginkortasuna bermatzeko.</p> <p>Hori guztia Kontsumobideren eta sare horri atxikitako udalerrien arteko lankidetzahitzarmenen bidez egituratuko da, zeinek parte-hartzea antolatzea, elkarren konpromisoak zehaztea eta behar bezala funtzionatzeko beharrezko baliabideak eskuragarri egotea bermatzea ahalbidetuko baitute.</p>
--	--